

## Villajoyosa-ko ainguratokia.

Oriain dela hiru mila urte, gaur Villajoyosa den herriko biztanleak, Mediterraneoren beste aldetik zetozen ontzi feniziarrei so egoten ziren, txundituta ziurrenik. Brontze aroko herriaren parean, aingura, galtzeko arriskurik gabe botatzeko aproposak ziren *Posidonia oceanica*-z estalitako itsas-hondoak aurkitu zituzten feniziarrek, baita merkatal harremanei ekiteko jendea, eta hareazko hondartza ere, ontzietan heltzen ziren lagun eta merkantziak lehorreratzeko. Eta horrela jaio zen Villajoyosa-ko *fonda*, Valentziar erkidegoko portu historiko nagusienetariko bat, Nao lurmuturrera iritsi baino lehen azken portu garrantzitsua. Handik, Balear uhartediko itsasbidea hasten zen, antzinateko benetako itsas-autopista. Bere hondoetan, hainbat ikerketa arkeologiko burutu dira, Villajoyosa-ko udalak, Valentziako gobernuak eta Alacantko unibertsitateak kudeatuta. Mendeetan zehar bere garapena ezagutzeko, zenbait ekintza aitzindari egin zuten, emaitza ikaragarriak izan zituen Posidonia zelaien karbono 14 azterketa, esaterako. *Fonda* deitzen zen *Allon* erromatar herriko portua. Kristo ondorengo I. mendean, bertako portura iristen saiatu zen *Bou-Ferrer* izeneko merkatal ontzia, larri hondatua ziurrenik, baina ez zen inoiz ontzioletara helduko. Aro modernoan, pirata-base beldurgarrienetariko bat ere izan zen *fonda* portua, Valentziako Erresumako artilleria-babes onenetarikoa zuen gotorlekuak babestuta. XIX. mendean, Alcoi eskualdeko industriaren portu bihurtu zen: Bere ontzioletan egindako *goleta* edo *pailebote* motako ontziek 800 tonako pisua izan zezaketen, eta ozeano guztietan zehar ibiltzen ziren, 1860 inguruan Espainiako bigarren itsas matrikula bereganatu arte. Aro horretako harrizko aingura handi hauek, 3000 mila urte lehenago erabiltzen zituztenen berdinak dira: bi zulo dituzte hondoan sartzen ziren egurrezko hesolentzat, eta beste bat, sokarentzat. Portuaren historiak aurrera jarraitzen du, eta orain ez dago hondartza parean ainguratzeko lekurik, 1920. urtean itsasketaren garapenari egokitu zitzaion-eta. Orain, motorra duten ontziak kai mutur baten atzean babesten dira, eta aingurak ez dira harrizkoak, industriak egindako burdinazkoak baizik. Baina airean oraindik badaude kostaldeko arotzek eta marinelek fenizieraz, latinez, arabiarrez edo valentzieraz esandako hitzak; eta itsas hondoak bere baitan gordetzen du guri azken 3000 urteetan erori eta hondoratu zaigun guztia.